

## ORRATZAREN OROITZAPENAK: BIZITZAREN OIHALEAN PUNTADA BILA

*Los recuerdos del hilo: en busca de puntadas en la tela de la vida*

*Memories of the needle: looking for stitches on the canvas of life*

Amaia Alvarez Uria\* 

Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

<b>Hitz gakoak</b> Joskintza Glosarioa Material autobiografikoa Pertsonala politikoa da	<b>LABURPENA:</b> Testu esperimental honetan joskintzari buruzko oroitzapenak eta haien inguruko gogoetak azaltzen dira ondoz ondo. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago, egilearen errealitate diglosikoa islatzeko eta txatalez txatal jantzi bat sortzeko, hemen eta orain edonorena izan litekeen bizitza bat sinbolizatzen duena, ehunen azarnez jositako bizitza bat. Hitzetatik abiatuta, bizipenak aletu, eta kultura eta komunitate konplexu batean kokatuko dira. Haria eta orratza hartuta, haurtzarotik helduarora feminitatearen eraikuntza irudikatuko da, eta horri begira sortutako arrakalak. Era berean, familiako zenbait tradizio nola transmititzen diren ere aztertuko da. Nola irudikatu den etxe barruan eta ikastetxeetan jakintza femeninotzat jotzen den arte hori, eta zer mito eraiki diren literaturan, musikan eta dantzan. Azkenik, gaiarekin lotutako irakurketekin itxiko da saiakera.
<b>Palabras clave</b> Costura Glosario Material autobiográfico Lo personal es político	<b>RESUMEN:</b> En este texto experimental se exponen sucesivamente recuerdos y reflexiones sobre la costura. Está escrito en euskera y en castellano para reflejar la realidad diglósica de la autora y crear a base de retales una prenda que simboliza una vida con huellas textiles que pudiera ser la de cualquiera aquí y ahora. A partir de las palabras, se desgranarán las vivencias y se situarán en una comunidad y una cultura complejas. Tomando el hilo y la aguja de la infancia a la edad adulta se representará la construcción de la feminidad y las brechas surgidas al respecto. También se rastreará cómo se realiza la transmisión de ciertas tradiciones familiares. Cómo se ha representado dentro de casa y en los colegios ese arte que se considera un saber femenino y qué mitos se han construido en literatura, música y danza. Por último, se cerrará este ensayo con las lecturas relacionadas con el tema.
<b>Keywords</b> Sewing Glossary Autobiographical material Personal is political	<b>ABSTRACT:</b> This experimental text shows successively the memories of sewing and the reflections on sewing. It's written in Basque and Spanish to reflect the author's diglossic reality and create a garment that symbolizes a life with textile remains that can be anyone's here and now. From words, experiences will break down and settle in a complex culture and community. From childhood to adulthood, thread and needle represent the construction of femininity and its cracks. It will also investigate the transmission of certain family traditions. In the interior of the house and in the schools, the representation of this art, considered as female knowledge, and the myths that have been constructed in literature, music, and dance. Lastly, this essay shall be closed in connection with readings relating to the subject.

\* **Correspondence author / Correspondencia a:** Amaia Alvarez Uria. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Facultad de Educación y Deporte, Departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura. Juan Ibañez de Santo Domingo, 1. 01006 Vitoria-Gasteiz – amaia.au@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-6779-4138.

**How to cite / Cómo citar:** Alvarez Uria, Amaia (2026). «Orratzaren oroitzapenak: bizitzaren oihalean puntada bila». *Papeles de Identidad. Contar la investigación de frontera*, vol. 2026/1, papel 340, 1-9. (https://doi.org/10.1387/pceic.28135).

Fecha de recepción: diciembre, 2025 / Fecha aceptación: febrero, 2026.

ISSN 3045-5650 / © UPV/EHU Press 2026



This work is licensed under a  
Creative Commons Atribución 4.0 Internacional

## 1. GLOSARIO O LEXICÓN / HIZTEGI TEKNIKOAK DISKURTSORAKO HITZAK

**JOSI:** 1 Haria eta jostorratza erabiliz, ehun baten edo kideko gai baten zati bi lotu, edota zerbait ehun bati edo kideko zati bati atxiki; haria eta jostorratza erabiliz jantzi bat egin edo konpondu. Adibidez, atalak elkarrekin josi. 2 Nolabait lotu edo elkartu. 3 Paper orriez mintzatzuz, elkarri atxiki eta gai gogorren batez estali. 4 Gauza batean beste bat irmoki finkatu, zeharkatzen dituen zerbaiten bidez bereziki. 5 Erabat bete.

*Jostea beti iruditu zait magikoa. Hartu haria, hartu orratza eta ezerezetik zerbait sortzeko abilezia. Superbotere hori zuen nire berramamak eta horri esker lortu zuen bere seme-alabak, tartean nire amama, aurrera ateratzea.*

**COSER:** Unir con hilo. Zurcir, hilvanar, remendar, bordar. Hacer labores con aguja e hilo. Hacer/repairar una prenda. Producir (a alguien) muchas heridas con un arma. «Coser y cantar»: muy fácil.

*Mi bisabuela Teresa un día hizo las maletas y se llevó a sus hijas e hijos a Melilla. Primero un tren y luego un barco. Atrás dejaron un marido y un padre que no quería dejar el pueblo y un pueblo malagueño en el que no veía futuro.*

**OVILLAR:** Hacer ovillos. Devanar, bobinar, enmadejar. Encogerse y recogerse. Acurrucarse.

*HILVANAR es una palabra que aprendí con mi abuela Isabel. «Punto» dejó de ser seguido o final para pasar a ser bobo con mi abuela Ana. El «huso» y la «rueca» comenzaron a ser parte de mi vocabulario con la Bella Durmiente de Walt Disney.*

**IRUN:** Ehuntzeko gaia hari bihurtu. Irun den ehungaia, ehuntzeko haria.

**GORU:** Iruteko erabiltzen den tresna, makila gisakoa, goian iruteko gaia jartzeko atal bat duena. Ardatz, kilo.

*Huso «ardatza» da euskaraz eta rueca «gorua» edo «kiloa». Hitz horiek beranduago ikasi nituen, kantuen bidez, Euskal Filologian aztertu genituen baladetan, eta ahozko literaturan, bert-solaritzaren munduan, Ipar Euskal Herriko kantatzeko tradizioan.*

**TRAMAR:** Atravesar los hilos de la trama por entre los de la urdimbre para tejer alguna tela. Tejer, urdir, hilvanar, forjar. Disponer, preparar con astucia un enredo, engaño, traición. Disponer con habilidad la ejecución de cualquier cosa complicada o difícil. Florecer los árboles (el olivo).

**TRAMA:** Confabulación o plan oculto para perjudicar a alguien. Estructura interna de algo. Disposición de los sucesos entrelazados en que se desarrolla el argumento de la obra. Conjunto de hilos que cruzados y enlazados con la urdimbre forman una tela.

**URDIMBRE:** Conjunto de hilos que se colocan en el telar paralelamente unos a otros para formar una tela. Intriga, trama, conspiración.

*Pero de los cantos llegamos a los cuentos si «hilamos» fino. «Urdimos» una «trama» al atravesar los hilos o sucesos para desarrollar el tejido o el argumento de una obra.*

**HARILKATU:** Ardatzean edo haril bat eginez haria bildu. Kontakizun bat ondu: kontakizun bat osatzen duten elementuak bata bestearekin lotu. Astalkatu, kotxeiatu, josi. Harildu. Zirkuitu elektriko baten harilen multzoa.

*Ardatzean haria biltzean «harilkatzen» dugu, edo kontakizun baten elementuak lotzen ditugunean. Haria prest, orratza gertu, «mataza» askatu beharko dugu eta «ehundura» osatu.*

**EHUNDURA:** Ehuntzeko era. Testura egitea. Elkarrekin erlazionaturik dauden elementuen multzo homogenea, gehienetan zerbaiten oinarri izaten dena.

**EHUNDU:** Irazkiko harien artetik bilbekoak pasaraziz, ehuna moldatu. Kontakizun bat edo kideko bat ondu; kontakizun bat osatzen duten elementuak bata bestearekin lotu.

*Beti izan naiz literaturazalea. Nire gurasoen zaletasun handiena eleberriak irakurtzea izan da beti. Baita detektibe serieak ikustea ere. Ederra da istorioaren hariari jarraitu eta misterioa argitzea amaierako azalpena heldu aurretik.*

**TEJER:** Formar en el telar la tela con la trama y la urdimbre. Urdir. Entrelazar hilos para formar telas. Hacer punto a mano o a máquina. Tricotar. Componer, ordenar, colocar. Discurrir, idear un plan. Cruzar en danza.

*«Tejer» puede ser coser lo descosido, zurcir los calcetines (¿alguien lo hace hoy en día?). Puede ser «hacer punto» o «tricotar» (del francés tricoter); incluso «hacer ganchillo» o «croché» (del francés crochet), que significa gancho).*

**BRODATU:** 1 Ehun edo oihal batean apaingarrizko jorsketa egin. 2 Ehun edo oihal batean egiten den apaingarrizko jorsketa.

**BORDAR:** Adornar con bordaduras una tela u otra materia. Labrar, adornar. Reproducir con bordaduras una figura. Ejecutar algo con arte y primor.

*«Puntua egiten» amama Anarekin ikasi nuen. Puntua eratik eta puntua atzetik egiten ikasi aurretik bobo delakoarekin zerrenda luzeak josten nituen, hiru buelta emateko moduko kolore bizietako bufandak. «Kakorratz-lana» ordea, amama Isabelekin ikasi nuen. Kate luzeak egiten nituen eta hortik aurrera, amamak abiadura hartzen zuen eta ez zegoen jarraitzerik.*

**BILBATU:** Bilbearen haria irazkiaren harien artetik zeharka igaroarazi. Kontakizun bat edo kideko bat ondu. Kontakizun bat osatzen duten elementuak bata bestearekin lotu. Engainu bat edo azpikeria bat trebeki edo hainbat trikimailu erabiliz prestatu.

*Después de que murieran mis dos abuelas me apunté a un curso de punto y ganchillo en el centro cívico de la parte vieja. Quería hacer un homenaje personal a mis antepasadas y darle continuidad a esa labor femenina.*

**HILAR:** Reducir a hilo el lino, cáñamo, lana, seda, algodón. Gusano de seda/araña que saca de sí la hebra para formar el capullo. Discurrir, trazar, inferir cosas. «Hilar fino»: discurrir con sutileza, proceder con sumo cuidado y exactitud.

*Ángelari esker bufanda luzeak eta kate amaigabeak egitetik, poltsak, txanoak eta jertseak egitera heldu nintzen. Amama biek sofán jarrita egiten zuten, irratitari entzun bitartean edo telebistari begira. Nik ere berdin, telebistaren aurrean, sofán jarrita, barruko erritmoari jarraituz.*

## 2. OROITZAPENAK / RECUERDOS GORPUTZAREN ZILBORRESTEA

### Hautzaroa

Uno de mis primeros recuerdos relacionados con el arte de la costura son las visitas a la modista. Un día especial en el que íbamos las tres hermanas a que nos tomara medidas y nos

cosiera un vestido con las telas elegidas por la abuela Isabel. Los vestidos no eran idénticos, cada uno tenía un detalle diferente. Lo recuerdo borroso, pero me acuerdo de que era un espacio de mujeres, con mucha luz, ajetreo, vergüenza y feminidad.

Haurtzaroko beste oroitzapen bat ikastolakoa da. Bertan ikasi genuen Zapatagin dantza. Asko gustatzen zitzaidan. Ipar Euskal Herrian irri dantza deitzen diote. Ni antzezpena eta dantza tartekatzeak zoriontsu egiten ninduen. «Kolpe, kolpe, kolpeka, josi ta josi, josi ta josi». Lehenik belauniko haria orratzean sartu, zapata josi eta korapiloa egin ondoren zapata kolpatu. Amaieran salto egin eta erdizka laueta bizkor-bizkor.

Mi abuela Ana era una mujer seria, elegante y reservada y uno de los recuerdos afectivos y cálidos que tengo de ella es el punto. Pero es curioso, porque al preguntar a mi madre, mis tías y mis hermanas apenas la recuerdan cosiendo. Sobre todo la recuerdan cantando. Zarzuela y habaneras, canciones de amor y de guerra.

Nire amama Isabel bai gogoratzen dute kakorratza egiten: bere etxeko tapeteak edo gure panpinentzat egindako arropatxoak. Altzeimerrarekin gaixotu aurretik, zahar-etxera joan aurretik, bere azken lanetako bat niri egin zidan kakorratzeko bularretakoa izan zen. Arrosa, super *femme*, inoiz jantziko ez dudana, baina maitasun handiz gordetzen dudana.

Una de las canciones al saltar la cuerda era «Arroz con leche, me quiero casar, con una señorita de este lugar. Que sepa coser, que sepa bordar, que sepa la tabla de multiplicar». Mi abuela Ana era maestra y nos educó para ser señoritas, sí, pero instruidas. También recuerdo lejanamente la canción de los días de la semana de los payasos de la tele: «Lunes antes de almorzar, una niña fue a jugar, pero no pudo jugar, porque tenía que lavar, planchar, coser, cocinar...». La educación de una futura «mujer de provecho».

Mikel Laboak 1964an grabatu zuen lehen aldiz antzeko egitura eta mezua dituen euskal kanta bat (Azkueren *Cancionero Vascon* dago jasota kanta hau, 1920an): «O, Peio, Peio, logale nauk eta, jinen niza oherat. Irun ezan eta, gero, gero, gero, irun ezan eta, gero, gero, bai». Horrela hasten da, baina hurrengo zatietan «astalka zan, harilka zan, jos ezan...» esan eta gero, azkenean hau esaten dio Peiok: «argia dun eta, jinen hiz bihar».

Lihoa edo artilea lantzeko prozesua azaltzen da bertan, irutea, astalkatzea, harilkatzea, xuritzea, irakitea, pikatzea eta jostea. Etxeko jaunak (aitak edo senarrak) bere menpeko emakumeari (alaba, emaztea) gauean lotara joatea eragozten dio lan hori egin behar duelako, amaitu arte, nekatuta badago ere, berandu bada ere.

Nafarroa Behereko kantu herrikoa da «lruten ari nuzu». Hasiara bera du bertsio guztietan: «lruten ari nuzu, kiloa gerrian, ardura dudalarik, nigarra begian». Ezkontzeko adina duen emakumeak ez du ezkondu nahi hasierako bertsioetan: «Jendek erraiten dute ezkondu, ezkondu, niri ez zait oraino gogorik berotu». «Ezkont-mina dudala zuk omen diozu: ez dut amore minik, gezurra diozu». Azken bertsioan aldiz, zalduna arbuiatu eta morroiaren alde egiten du generoa klasearekin ere gurutzatuz. Lurraldetasuna, kultura eta hizkuntza ere zeharkatuko ditu kantuak Bizkarsoro pelikulan kantatzen dutenean, bigarren zatian (2023).

«Brodutzen ari nintzen» hasiko da *Neska ontziratua* balada. Europan zeharreko marinela bahitzailearen kantuaren euskal bertsioa da hau. Neska gaztea etxetik irten eta marinela amarruz eramango du itsasontzira. Bertan lo-belarra eman eta itsas zabalean daudenean esnatuko da neskatxa, babesik gabe eta hura bortxatzean daudenean bere buruaz beste egingo du. Baladaren hasieran brodatzen dagoela aurkezten digute eta leiho ondoan da-

goenez kanpoan marinelari entzuten dio, abesten. Agian bere ezkontzarako izarak, zapiak eta atorrak josten ari da, ezkontzeko adinera heltzen ziren andre guztiek egin behar zutena.

## Gaztaroa

Unibertsitatera heldu nintzenean gehien gozatu nuen irakasgaietako bat mito grekoak eta erromatarrak aurkezten zizkiguna izan zen. Aspaldiko ipuinak dira, pertsonen arteko harremanen sua eta izotza erakusten dituztenak, nire amama Isabeli gustatzen zitzaizkion bazkalosteko telenobelen parekoak.

Mitologia klasikoan, Grezian eta Erroman ere joskintzak badu bere tokia. Ipuinekin ikasten dugu bizitzen, ipuinek laguntzen digute egoera desberdinak ezagutzen, tarteka istorioak harilkatzen ditugu eta gure arimaren zauriak osatzen dituzte. Joskintzarekin lotutako aspaldiko narrazioak dira mito grekoerromatarretako batzuk: Penelope, Ariadna, Aracne eta Procne, ezagunenetik ezezagunenera, akaso.

Penelopek hogeitau urte pasatu zituen egunez josten eta gauzez jositakoa desegiten bere senarra, Odiseo edo Ulises, kanpoan zegoen bitartean, berarekin ezkondu nahi zuten bisitan joaten zitzaizkion gizon guztiei ezetz esateko. Senarraren zain zegoela zioen eta horregatik diote leialtasunaren sinboloa dela, emazte fidelarena. Baina bestela ere interpreta daiteke: bakarrik hobeto zegoela pentsatzen zuelako egiten zuen agian, gizonik gabe, bere etxeko andrea izanda eta ez senarraren aginduen menpekoa. Senar zaharra, eta bereziki kanpoan zegoena, mila bider nahiago zuen, ezaguna eta kanporakoa, senar berri, ezezagun, jaun eta jabea etxean baino. Bakarrik bai, baina aske ere bai. Gogoratzen dut unibertsitateko ikaslea nintzenean ezagutu nuen poema bat: Xohana Torresen *Tempo de ría* (1992) poema liburuko «Penelope». Bertan hitz egiten duena, Penelope, itxaroteari utzi eta ekintzara pasako da, etxetik irten eta bera ere itsasoratuko da: «Existe a maxia e pode ser de todos. ¿A que tanto novelo e tanta historia? Eu tamén navegar».

El hilo de Ariadna que ayudó a Teseo, hijo del rey de Atenas, a salir del laberinto del Minotauro, no le trajo a nupcias a su príncipe amado, sino que acabó abandonada por él en una playa desierta. Por ello, Ariadna acabó, según algunas versiones, suicidándose o, según otras, casándose con Dioniso. El hilo rojo que simboliza el amor de Ariadna por Teseo, gracias al cual Teseo cumple su misión, no se pierde y consigue más poder para él, aunque traicione a la mujer que le quería y confió en él. La que le procuró éxito y la que le dio sustento para que él pudiera viajar, emprender aventuras, y salir ileso y a salvo de ellas sin quedarse perdido en el camino de la vida. Esa labor invisible que han realizado tradicionalmente las mujeres gracias a la cual los hombres se han podido dedicar a la política o a la cultura, porque tenían asegurado lo necesario para vivir: la cama limpia donde dormir, la ropa que vestir, el plato en la mesa y la casa convertida en hogar. El hilo que sujeta la vida, el afecto y el cuidado que da seguridad y oportunidad para salir, volar y poder volver a casa.

Arakne ehule ezaguna zen, emakume gazte horren lana bikaina zen eta bera oso harro zegoen horretaz. Hainbeste, Atenea artisautzaren eta jakinduriaren jainkosari desafio egin ziola. Biek josi zuten tapiz bana, jainkosak jainkoen lorpen eta bertuteei buruzko irudiak josi zituen bertan, Araknek ordea, haien flakeziak, zehazki Jupiterren ezkontidearekiko leialtasun eza. Arakneren joskintza lana perfektua zen, baina Atenea izugarri haserretu zen hau-

tatu zuen gaiarekin; tapiza urratu eta Arakne kolpatu zuen. Araknek lotsaz eta damuz beteta, bere burua urkatu zuen. Atenea errukitu eta berpiztu egin zuen armiarma bihurtuta. Mito honek erakusten digu harro ez izaten, apal jokatzeko eta boteretsuei buruz gaizki esaka ez ibiltzen. Baina hori soilik beherako begirada da, behekoentzako araua, muga, betebeharra. Begia eta orratza zorrozten baditugu beste irakurketa edo joskera bat topa genezake. Izan ere, norberaren trebetasun eta dohainekin pozik egotea ez da bekatu eta ospe handikoek itzal luzea dutela esatean, alde iluna ere badagoela erakustea beharrezkoa da. Arakne izan daiteke herriaren edo zapalduen erresistentziaren eta ahalduntzearen sinboloa modu horretan. Artisaua artista edo maisu-maistraren pareko egiten duena eta bigarrenaren eguterari alderdi laiotza aurkitzen diona.

Procnerena izan da beranduen ezagutu dudana mitoa. Atenaseko erregearen alaba zen eta Tereo heroiarekin ezkondu zen hark Tebaseko erregearen kontrako gerran bere aitari emandako laguntza eskertzeko opari gisa. Bi neba zituen eta ahizpa bat, Filomena. Eta Tereorekin seme bat izan zuen: Itis. Egun batean senarra ahizparen bila joan zen eta berarekin liluratuta geratu eta bertan bortxatu zuen. Procneri ez kontatzeko mihia moztu zion Filomenari eta baxetxe batean giltzapean utzi zuen. Honek tunika batean gertatutakoa josi eta esklabu bati eman zion Procneri eramateko. Procnek Filomena askatu zuen eta mendekua hartu zuen: semea hil eta afaltzeko eman zion bere senarrari. Honek egindakoaren berri izan zuenean, ahizpen bila abiatu zen biak ezpatarekin hiltzeko, baina jainkoek bata urretxindor, bestea enara eta senarra arrano bihurtu zituzten.

Procneren istorioa, esan bezala, duela gutxi ezagutu nuen eta oilo ipurdia jarri zidan. Antzinatek dator gizonen euren grina sexuala asetzeko sentitzen duten inpunitatea, emakumeak nahi bezala erabiltzeko haien borondatearen kontra eta haien onespenerik gabe. Baina orduan bezala, orain ere badira bideak botere gehiegikeria hauek salatzeko eta ahizpatasunez elkarri laguntzeko, izan tapizari bidez, izan sarera igotako testigantza anonimoen bidez. Hitzek ezin dutena eskuek ahal dute.

## Helduaroa

A mi madre nunca le ha gustado coser. Lo relaciona con la asignatura «Mis labores» que tenía que cursar en la escuela franquista. Lo relaciona con «el ángel del hogar» y el rol femenino patriarcal de la buena ama de casa. Por eso yo he sido autodidacta, cosiendo calcetines, pinchándome los dedos y frecuentando la casa de los arreglos.

Yo coso, pero no sé coser. La máquina de coser Singer que le regaló el abuelo a la abuela Isabel siempre ha sido un mueble que me ha impresionado en su casa. El pedal, el ritmo y el hierro forjado de la mesita que soportaba la máquina de coser, ese artilugio de precisión. La princesa dormida esperando un beso, el traqueteo del tren que comunica pueblos y ciudades, el hilo de las ovejas y de la planta del algodón que dibujan prados verdes y plantaciones coloniales.

Boladaka josten dut, arimaren zauriak ixten laguntzen du tarteka orratzari eragiteak, bularraldeko laino beltza desagiten ere laguntzen du harien dantzak eta sormena, irudimena eta adierazpenari aukera ederra ematen die. Era berean, zerbait josteko proiektu bat duzunean, puntuak kontatu, segida bakoitzean josteko modua aldatu eta adi jarraitu behar duzu garapenean akatsik ez egiteko.

Hasta que no progresé en este arte del punto y del ganchillo, yo no sabía que hubiera tanta matemática en ello, que además de buena vista y destreza con las manos, se necesitara mente clara y un rápido intelecto.

Hurbileko senide eta lagun batzuei oparitu izan dizkiet ponpoiak edo loreak zorte ona opatzeko edo maitasuna helarazteko. Nire proiektuetako bat kaleko ekintza txiki bat izan zen. Auzoan kale nagusi bati martxoak 8 izena ipini ziotenean, kalearen izenaren zutabe bitan kokorratzez egindako sinbolo feministak hari morez josi eta huntza bezala eskegi nituen bertan. Baita hari gorritz egindako tanta kate pare bat ere.

Este año me he apuntado al sorteo del centro cívico y no me ha tocado. «Coser es fácil» se llamaba el curso que quería hacer. Entre otros objetivos más prosaicos, lo quería hacer para acercarme a mi bisabuela, la costurera, o a las modistas que me hacían vestidos, casi idénticos a los de mis hermanas. Un mes después de saber que no iba a poder ser este año, me encontré con una exalumna en su defensa del trabajo de fin de grado. Me contó que estaba contenta con el trabajo realizado, pero sobre todo con finalizar por fin la carrera. «Estoy a tope trabajando y necesitaba acabar con los estudios para centrarme en mis talleres». Resulta que ella es la profesora de «Coser es fácil». La vida hace su camino y las nuevas generaciones heredan labores y tradiciones de sus antecesoras. En su cuenta de instagram observo sus creaciones textiles: cintas para el pelo jaspeadas, camisetas de un solo tirante en diversos «animal prints», bolsos y pequeñas mochilas de colores. La costura no se ha perdido, sigue su curso, amoldándose a los nuevos tiempos y a las nuevas formas.

Artikulu honen azken lerroak idazten ari naizela jakin dut. Nire ahizparen urtebetetzerako bere seme nerabeak kokorratzez egindako diru-zorro bat oparitu dio. ikastetxean ikasi omen du josten, plastika irakasgai. Hara non hezkuntza sistemak emango dion jarraipena familiar etenda geratu behar zen tradizio honi.

### 3. (ER)REMATE(A) GOGOAREN ZILBORRESTEA

*Ariadnaren haria* izenburua ipini dio Beatriz Fernandez hizkuntzalariak bere azken liburuari (2025). Bertan egungo euskaldunok generoari begira ditugun jokaera linguistikoei buruzko gogoeta egiten du. Ariadnaren haria aipatzen du hasieran labirinto batean sartu delako, gai konplexua delako hizkuntza eta generoa gurutzatzea.

Fernandezek (*ibid.*) bere saiakeran aipatzen du hizkuntza, kultura eta identitatea elkarrekin lotuta daudela eta hori da artikulu hau ele bitan idaztearen arrazoietakoa bat. Material biografikotik tira eginda idatzi dut testu hau eta nire bizitzan bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, oso presente egon dira. Familiarengandik jaso dudana gaztelania da eta harekin kultura, ohitura eta bizimodu batzuk. Eskolan eta lanean ordea, euskara jaso dut bere ondare guztiarekin batera, eta gaur egun euskaraz bizitzen saiatzen naiz, eremu erdaldunetan dauden arnasgu-neak aprobetxatuta, gatazkan eta amore ematen tarteka.

Como filóloga me gustan las lenguas, me encanta conocer nuevas palabras y descubrir sus sonidos y significados. Ver las películas en versión original, escuchar canciones o leer poesía en diferentes lenguas añade colores y sabores al día a día. Pero la corriente actual parece dirigirse hacia otra dirección más uniforme y jerárquica. Se ve muy claro en las prácticas lingüís-

ticas de la nueva era, año tras año disminuye el apego, el vínculo afectivo con las lenguas minorizadas, con el euskera en nuestro caso, en nuestra casa.

*Puntobobo* izenburua du Itxaso Martinek 2024an argitaratutako eleberriak. Punto boboa da puntua egiteko oinarrizko modua, errazena. Nobelako pertsonaia nagusiak ama-alaba batzuk dira, etxean sartuta bizi direnak, eremu pribatuan, apenas kalera irten gabe, eta euren biziraupenerako baliabidea puntua egiten sortzen dituzten jertseak dira, salgai jartzen dituztenak herriko denda batean.

Jakintza femeninoa eta feminitatearen eraikuntza ditugu hemen, baita transmititutako ondarea ere. Berdintasun lege eta planen aroan gaude, baina baita 'genero ideologiaren adoktrinamendua'ren kontrako erantzun antifeministen garaian ere. Kontua da berdintasun horrek, oro har, jarduera maskulinoen gorazarrea eta orokortzea esan nahi duela oraindik, feminitatearen eta emakumeen jakintzaren debaluazioa eta gutxiespena nagusi direlako gure artean. Bizitza autonomorako heziketa nahi badugu, besteak beste, sukaldaritza, elektrizitatea, jostintza eta administrazioko izapideen kudeaketa bezalako jakintzak ikasi beharko genituzke gaztetatik, denak maila berean.

En *Hilos de vida* de Clare Hunter (2025), se ve claramente cómo se ha valorado de forma desigual «el arte de la costura», como ella lo llama, a través de los siglos. Es un patrimonio de la humanidad que, al identificarse con las mujeres, automáticamente pierde prestigio, como los términos manualidades, artesanía, cultura popular o tradición en ciertos contextos. Fue a partir del siglo de las luces, qué paradoja, cuando la costura fue paulatinamente abandonando el espacio público e identificándose como una labor femenina y doméstica, y, por lo tanto, convirtiéndose en una labor degradada. Pero esa feminización también le confirió magia y misterio, ya que al transmitir la costura entre madres e hijas se desarrollaron rituales y se crearon mitos. En palabras de Hunter:

«relatos de mujeres cuyo poder residía en el uso del hilo: la troyana princesa Andrómaca teje rosas protectoras para confeccionarle un manto a su marido, Héctor; Ariadna guía a Teseo hasta el centro del laberinto y luego de vuelta al exterior con un ovillo de hilo rojo. También están las tres Moiras o Parcas de la mitología griega, que controlan los destinos humanos: una teje el hilo de la vida, otra lo mide y la tercera decide cuándo cortarlo». (*ibid.*, p. 222).

Yolanda Arrietaren *Jostorratza eta haria* berriro argitaratu dute. «Zer gara? Berez gurekin datorrena ala bizitzan zehar egiten goazena? Bien nahastea, agian?» (Arrieta, 2025, p. 5). «Demagun urteak zuntza direla. Eta, denbora, zuntz horrexekin egindako oihala» (*ibid.*, p. 7). Horrela hasten da Arrietaren liburua. Genealogiaren garrantzia azpimarratzen digu lan honek. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen da kultura komunitatea eraikitzeke xedearekin eta garai berrietara egokitzen joaten da ondarea. Aurrekoarengandik jasotako jantziari konponketak egin eta aldaketak eransten zaizkio. Ipuinak kontatzen diren moduan, hariak eta orratzak dantzan jartzen dira historiaren berri elkarri emateko.

Esan bezala, aurreko eredia bere horretan hartuta edo eraldatuta egiten dugu aurrera denboran zehar: «Hasieran bezala, biluzik bazaude eta, bat-batean, josten egitea ahaztu zaizula konturatzen bazara, zatoz etxera eta jantzi zeure aurretiko norbaiten jantzia. Baliteke arropa horrek larrua babesteaz gain soinean eraman duenaren espiritua ere eranstea. Gustuko baduzu, ondo; bestela, zeuk ikusi». (Arrieta, 2025, p. 151). Tradizioaren eta modernitatearen arteko tentsioa elkarriketa bihurtzea da artea, kultura. Literaturaren munduan denboran

irauten duten idazlanak dira klasiko bihurtzen direnak. Gazteei balio ez badiete, ahanzturan geratuko dira.

Por último, *El infinito en un junco* de Irene Vallejo (2019) también nos muestra la relación entre la narración, la comunicación y la literatura por un lado, y el hilo y la aguja por otro. Según la autora las tejedoras se reunían para coser juntas y para compartir relatos e historias. La oralidad gozaba de una situación muy favorable en los grupos de trabajadoras artesanales, quienes, puntada a puntada, hilaban identidades personales y colectivas, vivencias y pensamientos compartidos entre zurcido y remate:

«A lo largo de los tiempos, han sido sobre todo las mujeres las encargadas de desovillar en la noche la memoria de los cuentos. Han sido las tejedoras de relatos y reales. (...) Ellas fueron las primeras en plasmar el universo como malla y como redes. Anudaban sus alegrías, ilusiones, angustias, terrores y creencias más íntimas. Teñían de colores la monotonía. Entrelazaban verbos, lana, adjetivos y seda. Por eso textos y tejidos comparten tantas palabras: la trama del relato, el nudo del argumento, el hilo de una historia, el desenlace de la narración; devanarse los sesos, bordar un discurso, hilar fino, urdir una intriga. Por eso los viejos mitos nos hablan de la tela de Penélope, de las túnicas de Nausíca, de los bordados de Aracne, del hilo de Ariadna, de la hebra de la vida que hilaban las moiras, del lienzo de los destinos que cosían las nortas, del tapiz mágico de Sherezade. (...) Me siento heredera de esas mujeres que desde siempre han tejido y destejido historias. Escribo para que no se rompa el viejo hilo de voz.» (p. 423).

Jarrai dezagun elkarri kontatzen, elkarrekin josten, aurrekoen jantziak jaso eta gure egiten, hurrengoei eskaintzen. Cosamos una cadeneta cada cual con su hilo, color y tensión. Josten eta desjosten, zabaltzen eta ixten. Buscando, encontrando y compartiendo.

#### 4. ERREFERENTZIAK ETA HIZTEGIAK / REFERENCIAS Y DICCIONARIOS

Arrieta, Y. (2025). *Jostorratza eta haria*. Alberdania.

Fernandez, B. (2025). *Ariadnaren haria*. Susa.

Hunter, C. (2025). *Hilos de vida*. Capitan Swing.

Martin, I. (2024). *Puntobobo*. Erein.

Vallejo, I. (2019). *El infinito en un junco*. Siruela.

Elhuyar hiztegia: <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>

Euskaltzaindia hiztegia: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_hiztegiabiltatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu-ES](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu-ES)

RAE: <https://dle.rae.es/>

Wikipedia: <https://www.wikipedia.org/>